

Elgoibar - 1283. zerb.
XXX. urtea - 2023-04-28



TOKIKOM

BARREN

The artist's signature



Mende ilunak argitzen

Parte hartzaileak

- Alire Estetika
- Aramburu Bibidenda
- Aauri Lurrindegia
- Atelier Oihana
- Barrutia Optika
- Bizkor Bizikletak
- Casa Astigarraga
- Cristina Garcia Estetika eta Terapia Naturalak
- Doña Mercedes
- Ecenarro Lentzeria
- Farmazabal
- Federopticos Ikus
- G&M Jantzi-denda
- Garate Jantzi-denda
- Garbiñe Estetika
- Goiara Drogeria
- Ipintza Margoak
- Iria Moda
- Iriondo Altzariak
- Iriondo Kirolak
- Iza'k Ileapaindegia
- Kala Loradenda
- Karkizano
- La Bermeana Arraindegia
- Lagunak Koltxoidenda
- Lanbroa
- Lete
- Martín Lopez Carburantes
- Meraki Ileapaindegia
- Modas Ferpi
- Nalai Oinetakoak
- Nu-van
- Olaia Martínez Estetika zentroa
- Ongi Iturgintza eta Diseinua
- Ortopedia Itziar Sarasketa
- Pixibntu
- Polibra
- Roteta Elektrizitatea
- Sara Jantzi-denda
- Txillarre Eko Denda
- Uzuri Optika
- Zazpi Informatika
- Zeleta Barazkiak
- Zure Alde Abokatuak

TXANKAKUA

Ginkana

5.000€

Elgoibarren | Comprar en Elgoibar
erosteak saria du | tiene premio

1.000€-ko lehen sari bat eta **200€-ko** hogeit hamar sari, erosceta-baleetan emango dira. Zozketa maiatzaren 30ean.

Maiatzaren 2tik 26ra!

*Animatu eta
hartu parte!*



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Leire Kerexeta Berasaluze

Ikaslea

Zer jakin nahi dugu?



**"Kezkatuta nago
azkenaldian hedabideetan
irakurtzen ditudan
albisteekin"**

Gogoan ditut umea nintzenean aitxixarekin egunkaria erostera joaten nintzen uneak. Lehendabizi erosketak egiten genituen; gero, egunkaria erosten genuen, eta azkenik, nik "mostoa" edaten nuen, eta berak, berriz, ardoa.

Badakigu, gaur egun iraultza digitalaren ondorioz, gero eta jende gutxiagok erosten duela prentsa paperean, baina uste dut ez dela aldatu den xehetasun bakarra. Egia da ez naizela behar bezala gogoratzen egunkaria erosten genuen goiz haietan aitxixak irakurtzen zituen hamaika albistek zer esaten zuten; hala ere, ziur nago ez zirela egun irakurtzen ditudan modukoak.

Jada unibertsitateko laugarren mailan nago, eta Zuzenbide eta Komunikazioko ikasle naizenez, egin beharrekotzat hartzen dut egunero prentsa albistek irakurtzea. Hori dela eta, sakelakoan etengabe jasotzen ditut albisteen izenburuekin abisuak, baina gehienetan ez dira izaten aurpegian irribarre bat margotzen dizuten horietakoak.

Benetan kezkatuta nago azkenaldian hedabideetan irakurtzen ditudan albisteekin: lapurretak, erasoak... Buruari buelta asko eman ondoren, ondorio batera heldu naiz. Zer da benetan jendeari jakitea interesatzen zaiona? Argi dago ez dugula inork gustuko arestian aipatu ditudan bezalako notizia tristeak entzutea; bestalde, baliteke jendeak gehien kontsumitzen dituenak izatea. Gero eta "morbo" handiagoa izan, gizarteak gehiago hitz egiten du gai horren inguruan, gauza onak gertatzea guztion eskemetan sartzen baita.

Ez dakit nork duen arazo honekiko erantzukizuna, hedabideek edo gizarteak, baina itzel arduragarria iruditzen zait egoera. Agian, bi alderdiak izango dira albiste mota hauekin irabazten dutenak. Hots, batak ale eta harpideak irabazten dituelako, eta besteak, berriz, bere eguneroko gauza on sinpleak baloratzen ikasten duelako.

BARENek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Aurpegierek kontatzen digutena

Ingandean Etxeretek deituta Bilbon batu ziren presoen senideen aurpegiak ikustea besterik ez dago egoeraren berritasunez konturatzeko. Ez dago gaur egun Euskal Herriko espetxeetatik kanpo dagoen euskal presorik. Sekulako karga arindu da senideen sorbaldetan eta hori gizartearen inplikazioaren emaitza izan dela adierazi dute. Bide luzea dugu aurretik, ordea, preso, errefuxiatu eta erbesteratuen eskubideak errespetatuak direla ikusi arte. Bakoitzaren bide legala jarraituz etxera itzultzeko prozesua burutu ahal izatea da oraingo erronka. Lege ordinarioaren aplikazioa eskatzen da, euskal presoentzat azken urteetan *ad hoc* sortu den ingeneria juridikoa albo batera lagata. Larriki gaixo preso dauden presoak askatzea, gradu progresio eta baimenak behingoz normalizatzea, Frantziako espetxeetan egin diren urteak kontuan izatea, 7/2003 legea desaktibatzea... dira orain helburuak herri honetako bizikidetzara eraikitzen jarraitzeko.

Bide horretan, hilaren 28an, ostiralez, elkarretaratzea egingo dugu Kalegoen plazan, 20:00etan. Maiatzaren 6an, larunbata, eta Etxera Egunaren harira, giza-kate alaia egin nahi dugu 13:00ean Maalako parketik hasi eta Kalegoen plazan bukatzeko. Animatu eta parte hartu!

Sare Elgoibar

Herritarrak engainatu nahian berriz ere

Urretxu-Zumarraga Bizi! plataformak herrian bertan "hondakin plastikoen birziklatze kimikorako instalazio" bat ezarri nahi dutela salatu du. Plastic Energi enpresak pirolisia izeneko teknologia erabiltzen du Europako zuzentarauek eta Espainiako Gobernuaren dekretuek (815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa) errausketa prozesutzat hartzen duena, ez birziklatze-prozesutzat. Hortaz, bertan egin nahi dutenari errausketa ez den beste modu batera deitzea, herritarrak engainatzen saiatzea dela salatu du.

Plataformak adierazi du horrelako instalazioetan, gasak erretzeko eta hozteko

prozesuetan, substantzia kimiko ugari sortzen direla kontrolik gabe, eta horietako batzuk osasunean eta ingurumenean izan ditzaketen eraginak ez daudela behar bezala aztertuta oraindik.

Plastic Energi enpresak Andaluzian dituen proiektuen datuak lortu ditu plataformak eta instalazioak dioxina eta furanoak bezalako substantzia kutsatzaileak isurtzen dituela egiaztatu du. Frogatuta dago substantzia hauek izaki bizidunengan eragiten duten kaltea: larruazalean, hormonetan, sistema hepatikoan, ugalketa sisteman... minbizia sortzeraino. Bereziki arrisksuak dira fetuaren eta haurren garapenean.

Ezaguna egiten zait kontu hau. Zubietako erraustegia gogoan duzue? Endika errepeka... Ia egunero entzuten ari gara ingurumenaren aldeko eta aldaketa klimatikoaren aurkako pausoak eman behar ditugula herritarrok, bai ala bai. Eta enpresa kutsakor hauei inork zerbaite eskatzen al die? Segimendurik egiten al da? Bestelako alternatibak garatzen al dira? Hauteskunde garai hauetan, nori emango diezue botoa? Politikari erraustegi zaleei? Aire garbiak bira gaitzala!

A.I.Z.

Oharra

Joan zen astean txakur kaken inguruko kexa bat argitaratu genuen Semaforoa atalean. Herrigunea ez dela txakurren kakalekua zioen kexa jarri zuen herritarrak. Zehazten zuen jakin bazekiela txakurrek ere behar hori dutela, baina ez zitzaiola iruditzen herrigunea zenik horretarako lekua. Argazkian bi txakur ageri ziren. Ohar honen bidez, zehaztu nahi dugu argazkia ez zela herritar horrek bidalitakoa, baizik eta gure artxibokoa. Bestetik, txakur horien jabearen eskariz zehaztu nahi dugu berak beti jaso ohi dituela bere txakurrek egiten dituzten kakak. Horregatik barkamena eskatzen diogu argazkiak eragin dion minagatik.

BARREN

Anbulatorioan etengabeko arreta ezar dezatela eskatzeko elkarretaratze jendetsua egin dute



Plataforma sortu zutenetik bi urte igaro direla-eta, hainbat mobilizazio antolatu ditu Elgoibarko 24/7 Plataformak. Horietako bat izan zen eguaztenean Kalebarren plazan egin zuten elkarretaratzea. Beste behin ere, anbulatorioa aste osoan 24 orduz zabaltea eskatu zuten. Maiatzaren 4rako eta 11rako ere iragarri dituzte ekitaldiak. Bi egun horietan informazio panelak jarri eta diptikoak banatuko dituzte Kalebarren plazan (11:00etatik 13:00etara eta 18:30etik 20:00etara).

EAJ-k erabilera politikoa egitea egotzi dio plataformari

Elkarretaratze horren aurretik Elgoibarko EAJk prentsaurrekoa eman zuen Batzokian kiroldegiko langileen greba eta anbulatorioaren gaia hizpide hartuta. Elgoibarko EAJko buru Alfredo Etxeberriak anbulatorioaren gaiarekin erabilera politikoa egitea egotzi zion plataformari eta bere alderdiak duen iritzia berri eman zuen. Osakidetzak ematen duen osasun zerbitzuari "kalitatezkoa" iritzi arren, gero eta zerbitzu zabalagoa eta osatuagoa izatearen ondorioz garestiagoa ere badela esan zuen: "Sei kilometroko erradioan eskualderako zerbitzua ematen duten bi ospitale edukitzea, Euskal Herrian gutxi goza dezakegun pribilegioa da". Halere, hobetzeko aukera badagoela zehaztu zuen. "Tokiko osasun zerbitzua, gertutasuna, lehen instantzia, etengabe eguneratu behar da eta EAJ-PNV Elgoibarren hala ulertzen dugu". Alabaina, mugak ere kontuan izan behar direla

zehaztu zuen, eta muga horiek kostuekin lotu zituen: "Etengabeko hobekuntza eta eguneratzea eskatzen duten mugak, baina zilegi denari egokituak. Kasuan kasuko zerbitzurako irisgarritasuna bermatzen duten etxeko arretaren bitartez, adibidez, larrialdietako orduen murrizketei erantzuten dieten irtenbideak bilatu eta ezartzea".

Osasun zerbitzuen gaia osotasunean lantzekoa dela esan zuen Etxeberriak, larrialdi zerbitzuaren ordutegia moduko aldarrikapenetara mugatu gabe, eta nabarmendu zuen zerbitzua "bere osotasunean" hobetzeko ari direla lanean. "Elgoibarren eta baita Erkidegoan ere, denok ados egongo gara Osakidetzak ematen dituen zerbitzuak eguneko 24 ordutan eta urteko egun guztietan jasotzea gustatuko litzaigukeela esaten badut, baina lurralde osorako egin beharreko planteamenduak dira, ez herriz herri. Horregatik eragin txikia dauka Elgoibar moduko herri batek Jaurlaritzaren edo Osakidetzaren aurrean egin dezakeen eskaera konkretu batek, ordutegiarenak, esaterako". Bere esanetan, osasun zerbitzua osotasunean aztertu behar da, "zerbitzu guztiak eta horiek emateko eskura dauden baliabideak zein diren aztertuta". Horren harira esan zuen azterketa hori eginga duela Jaurlaritzak, Elgoibarko Udalarekin elkarlanean, eta gabezia bat atzeman dutela, gaur egungo azpiegitura txikia gelditu dela. Ildo beretik, esan zuen leku mugatua izatea bera beste muga dela etorkizunean ezar litezkeen zerbitzuei begira eta ahaleginduko direla konponbidea bilatzen.

Elgoibarko eta Mendaroko EH Bildukoek osatu dituzten taldeak aurkeztu dituzte



Elgoibarko EHBilduk zapatuan egin zuen zerrenda osoa aurkezteko ekitaldia, Maalan. Adar doinuekin hasi zuten ekitaldia eta Itxaso Egañak aurkeztu zuen. EH Bilduren Udal hauteskundeetarako zerrenda osatzen duten lagunak banan-banan aurkeztu zituzten eta ondoren, prestatu duten herri-programaren ardatzetako batzuk azaldu zituen Aitziber Aranberri alkategaiak. Biraka dantza taldeko kideek prestatutako dantzaldiaz gozatu ahal izan zuten gero eta bertsotan eman zioten azkena ekitaldiari.

Zerrendakideak: Aitziber Aranberri Uranga, Iñaki Lazarobaster Badiola, Eneritz Azkue Basurko, Jorge Hernando Gaona, Nagore Cid Alzibar, Jose Luis Mulas Aljonilla, Jone Olaizola Oñederra, Andrea Etxaniz Arregi, Fermin Lazkano Perez, Joseba Osoro Iturbe, Ane Astiazaran Makatzaga, Jon Peli Uriguen Ansola, Elsa Sanchez Oñederra, Miguel Alvarez Leo, Iruñe Mugertza Arantzamendi, Jesus Mari Makazaga Eizagirre, Ikuska Barua Etxeberria, Gerardo Otero Iglesias, Itziar Goñi Gabilondo, eta Jose Agustin Alonso Mugertza.



Mendaroko EHBilduk domekan atera zuen udal hauteskundeetarako aurkeztuko duen taldearen argazkia. Lantaldeaz dio hainbat esparrutan jakintza eta esperientzia kolektiboa uztartzen dituen auzotar talde konprometitu eta ausarta dela, "ikuspegi estrategikoarekin, mendaroar guztien bizitza hobetzeko lan egiteko prest" dagoena. Honakoek osatzen dute

zerrenda, hurrenez hurren: Enez Ezenarro Arriola, Borja Rodriguez Barreras, Sonia Garcia Raposo, Javier Muñoz Moreno, Dorleta Lazarobaster Arakistain, Olatz Bizkarguenaga Iñarrairaegi, Gartxot Fidalgo Urain, Amagoia Basurto Urain, Jon Larrañaga Gorrotxategi, Nerea Larrea Plaza, Egoitz Horrillo Furundarena eta Maria Longarte Arriola.

Elgoibarko EAJk aurkeztu du zerrenda osoa



Udal hauteskundeetarako zerrenda osoa aurkeztu zuen Elgoibarko EAJk eguenean, Kalebarren plazan egin zuten ekitaldian. Era berean, hurrengo legegintzaldian gauzatu nahi dituzten proiektuen berri ere eman zuen Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkategai jeltzaleak. Zerrenda honako hauek osatzen dute: Maialen Gurrutxaga (kimikaria, zinegotzia eta legebiltzarkidea), Ion Zubiaurre (arkitektoa), Andrea Arriola (zinegotzia eta batzarkidea), Ricardo Astigarraga (banketxeko zuzendaria, aurrejubilatua), Pili Iranzo (etxekoandrea eta boluntarioa), Iñigo Loiola (Landa eremuko

zinegotzia), Atsegín Uzuriaga (banketxeko langilea), Aitor Iriondo (komertziala eta erakundeen nazioartekotze ikaslea), Ana Santolaya (Zuzendaritza Administraria), Silvia Gabiola (administraria), Julen Etxeberria (Finantza administraria eta finantza zuzendaritza ikaslea), Miriam Sanchez (administrari komertziala), Emiliano De Pablo (jubilatua), Amaia Arrieta (jubilatua), Noemi Otegi (irakaslea), Javier Usatorre (ostalaritzan aritua), Uxue Etxeberria (Lehen Hezkuntzako Magisteritza ikaslea), Iban Gonzalez (mekanikaria), Susana Etxabe (administraria), Juan Mari Eguren (jubilatua).

Karakaten parke eolikoa jartzeko arriskua bizi ikusten du Elkarrekin Podemosek

Elkarrekin Podemos, Ezker Anitza-IU, Berdeak-Equo eta Aliantza Berdea koalizioko ordezkariak, tartean Miren Echeveste ahaldungaiak eta Evaristo Rodriguez Elgoibarrerako alkategaiak, agerraldia egin zuten joan den eguenean Mintxetan, Karakate mendian parke eolikoa egiteko proiektua salatzen. Duela urtebete ezagutzera eman zuten aerosorgailuak jartzeko proiektuak herritar guztien "gaitzespen irmoa" duen arren, eta Elgoibarko eta Soraluzeko udalek kokapen horiek babesteko plan bereziak onartu dituzten arren, proiektuak mahai gainean jarraitzen duela salatu zuen Rodriguezek. "Ez dute baztertu, eta horrek beldur handia sortzen digu; izan ere, alderdi politiko batzuk zain daude, hauteskundeak pasatzeko zain, proiektuarekin jarraitu ahal izateko, jakin baitakite hauteskundeetan eragina, kostu politikoa, izango lukeela gai honek", adierazi zuen. Bere



esanetan, Elgoibarko alderdi batzuek Karakate defendatzen dute, baina aldi berean Jaurilaritzan horrelako proiektu "zoro" eta "arazotsuak" aurkezten dituzten enpresa energetikoen eskutik doaz. Egiteko beste modu bat aldarrikatu zuen, "hau gure herria delako, ez haien negozioa".

5.000 euro banatuko ditu Txankakuak 'Elgoibarren erosteak saria du' kanpainaren barruan

Elgoibarren erosteak saria du ginkana hasiko du Txankakuak, Elgoibarko Merkatarien Elkartek, maiatzaren 2an, martitzenean. Eta kanpaina horren barruan, 5.000 euro banatuko ditu erosketa bonoetan: 1.000 euroko sari handi bat eta 200 euroko hoge sari.

Kanpainari atxikitako saltokietan kartilla bat jarriko dute bezeroen eskura eta kartilla horrek sei hutsune edo koadrante izango ditu. Erosketa bat egiten duen aldiro, zigilu bat jarriko dio saltzaileak eta hala osatu beharko du kartilla, baina zigilu guztiak ezberdinak izan beharko dira: hau da, ez du balioko erosketa guztiak denda berean egitea. Kartilla osatuta duenean, kanpainara batutako dendetako batean laga beharko du, bere izen-abizenak eta telefono zenbakia zehaztuta (kartilla bat baino gehiago



betetzeko aukera izango da). Parte hartzeko azken eguna maiatzaren 26a izango da eta zozketa maiatzaren 30ean egingo dute.

Udaberriko Elikagai Bilketarako boluntario bila ari dira Elgoibarren



Udaberriko Elikagai Bilketan parte hartzeko deia egin dute Elgoibarko Udalak eta Gurutze Gorriak. Maiatzaren 12an eta 13an egingo dute janari bilketa eta boluntarioak behar dituzte horretarako. Udaletik jakinarazi dute txandak osatuko dituztela, bai hilaren 12rako eta baita 13rako ere, baina horretarako komeni dela prest daudenek lehenbailehen ematea izena. Horretarako bi aukera zabaldu dituzte: Deitu daiteke 943 741 050 telefono zenbakira edo nahiago duenak Elgoibarko Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegora joan eta bertan eman dezake izena (Santa Ana kaleko bigarren atarian dago bulegoa).

Sigmako eraikinak birgaitzeko dirulaguntzen berri emateko bulegoa



Hurbiltasun Bulegoa zabaldu du Eusko Jaurlaritzak Sigmako eskoletan, auzoko eraikinak birgaitzeko ematen dituen dirulaguntzen berri emateko. Dirulaguntzen programa amaitu arte izango dute zabalik bulegoa, hau da 2025. urtea amaitu arte. Martitzen eta eguenetan zabalduko dute bulegoa, 12:30etik 17:00ak arte, eta Debegesa tokiko garapen-agentziako langileek emango dituzte bertan behar diren argibideak. Bulegora joan ahal izateko ez da beharrezkoa aurrez ordua eskatzea. Edozein zalantza izanez gero, 675 873 853 telefono zenbakira deitu daiteke edota olasogainbulegoa@debegesa.eus helbidera idatzi.

Maiatzaren 7a arteko epea dago Elgoibarren udako oporraldiko eskaintzarako izena emateko

Atxutxiamaiakak eta Udal Ludotekak HH2tik LH6ra arteko umeentzako udako oporraldia antolatu dute, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Maiatzaren 7a izango da horretarako azken eguna, eta maiatzaren 20an esleituko dituzte plazak, behar den kasuetan zozketa eginez. Urtero bezala, bi txanda egongo dira aukeran: ekainaren 26tik uztailaren 7ra, eta bigarrena, uztailaren 10etik 21era. 09:30etik 13:00etara arteko zerbitzua emango dute, eta LH1-3 arteko umeek egun osoko irteera izango dute astean behin. LH4-6koentzat egonaldiak eta ekintza solteak antolatu dituzte. Atxutxiamaiakak, bestalde, eskaintza honen osagarri diren goizeko zaintza zerbitzua eta txoko osagarriak eskainiko ditu. Udaldiari buruzko



informazio osoa: Elgoibarko Izarrara (943 741 746) edo Ludotekara (943 748 883) deituta edo elgoibarkoizarra.eus webgunean jaso daiteke. Udalak dirulaguntzak emango ditu. Eskaera egiteko epea maiatzaren 7an bukatu da. Eskaerak Herritarren Arreta Bulegoan egin behar dira. Informazio gehiagorako: 943 741 050.

Maiatzaren 2an zabalduko dute Mendaroko udalekuetan izena emateko epea

Mendaroko Udalak udaleku irekiak antolatu ditu, eta maiatzaren 2tik 12ra bitartean eman behar da izena. Ekainaren 26tik uztailaren 21era egingo dituzte udalekuak, astelehenetik barikura, 10:00etatik 13:00etara. Bi txanda egongo dira aukeran: ekainaren 26tik uztailaren 7ra lehenengoa, eta uztailaren 10etik 21era bigarrena. Txanda bakoitzak 70 euroko prezioa

dauka, eta biak hartuz gero, 120 eurokoa da prezioa. Familia ugari edo guraso bakarreko familiek deskontuak izango dituzte. Plaza mugatuak izango dira, eta muga gaindituz gero, epe barruan izena ematen dutenen artean zozketa egingo dute maiatzaren 16an, plazak banatzeko. Informazio gehiago: 943 03 32 82 / 613 058 757 / kultura@mendaro.eus

Desfibriladoreak erabiltzen ikasi nahi dutenentzako deia, Mendaron

Lau desfibriladore jarri ditu Mendaroko Udalak kalean eta haiek erabiltzeko gai izango diren boluntario sarea sortu nahi du orain. Interesa dutenek Mendaroko Udalaren webgunean sartuta eman behar dute izena eta izena emandakoen arabera osatuko dituzte gero taldeak eta zehaztuko dituzte formazio saiorako egunak eta orduetegiak, baina aurreratu dute maiatzean zehar egin nahi dituztela. Herriko elkarteetako ordezkariak apirilean formatu nahi zituzten, baina atzeratu egin dituzte saiook. Gai honen inguruan zalantzaren bat izanez gero, 943 033 282 telefono zenbakira deitu daiteke.

Errenta aitortpena euskaraz egin ahal izateko kanpaina, martxan

Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiatu dute UEMAKO udalerriek, tartean, baita Mendarok ere. Errenta euskaraz egiten duten herritarren kopurua urtez urte gorantz ari den arren, errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago oraindik, eta horretan eragin nahi dute. Modu bat baino gehiago egon daitezke eskatzeko: autolikidazio proposamena onartzeko orduan, eta baita aitortpena Internetez edo modu mekanizatuan ogasunaren bulegoetan aurrez aurre egitean ere, euskaraz egin nahi duzula hautatuz nahiz langileari adieraziz. Informazio gehiagorako: www.gipuzkoa.eus.




María Iriondo Arriola

2023ko apirilaren 22an hil zen Mendaron, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ama, amama,...
hartu merezitako atsedena.
Betirako egongo zara
gure bihotzetan.***

Etxekoak



María Jesús Alberdi Orbea

2023ko apirilaren 23an hil zen, 93 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zauden lekuan zaudela,
argitu ezazu gure bidea.
Maite zaitugu.***

Etxekoak



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

"Soldatak eguneratzeko" greba mugagabeen daude kiroldegiko beharginak



J oan den apirilaren 22az geroztik greba mugagabeen daude Udal Kirol Patronatuak azpikontrataturako BPXport enpresarentzat Olaizaga kiroldegian eta Mintxetan lan egiten duten beharginak, enpresak eginiko proposamena ez onartzea erabaki eta gero. Eta eguaztenean, langileak plazara irten ziren protestan, herritarrek bizi duten egoeraren berri izan dezaten.

Kalegoen plazan egin zuten elkarretaratzearen ostean, kiroldegiko soroslea eta ELA sindikatuko ordezkaria den Andoni Mendezek udal ordezkarietara eman zizkien azalpenak Udalbatzararen osoko bilkura amaitu berrikan. Aurrez, Kirol Patronatuko langileen egoerari buruzko mozioa aurkeztu zuten EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek. Ez zuten onartu, eta horren ordez EAJk aurkeztutako beste bat onartu zuten. Elkarretaratzean, BARRENi ere eman zizkion azalpenak Mendezek: "Ez digute soldatarik igo azken 11 urteetan. 2012an %10ean jaitsi zizkiguten soldatak, behin behinekoa zen erabakia zela esan zitzaigun arren gaurdano mantendu zaigun murrizketa izan da. Gerora, ez digute soldatarik igo. Orain enpresak eskaintzen diguna da 2012an galdu genuen soldataren %10 hori berreskuratzea. Guk, baina, IPCa eta soldatak eguneratzea eskatzen dugu, izugarri garestitu baita bizimodua. Negoziatzeko prestutasuna izan arren, ez dugu ezer lortu eta horrek ekarri gaitu gauden egoerara. Espero dugu guztiak ulertzea zerbitzu publiko bat ematen dihardugula. Irtenbide bat bilatzeko eta negoziatzeko prest gaude gu,

enpresako eta udaleko ordezkarietara mahai batean esertzeko prest. Gatazka lehenbailehen bukatzea nahi dugu, badakigulako erabilzaileei kalte egiten diegula. Sentitzen dugu beraiengatik".

EAJ-k "ahalegina egitea" eskatu die langileei

Lan gatazka honen inguruan duen iritzia emateko prentsaurrekoa eman zuen eguaztenean bertan EAJk. Elgoibarko Uri Buru Batzarreko presidente Alfredo Etxeberriak adierazi zuen alde guztiak egoera bideratzeko ahalegina egin behar dutela, "salbuespenik gabe". "Langileen soldatak eguneratzeko beharra ikusita, 2022ko urrian Patronatuak eta Udalak baliabide ekonomiko nahikoak jarri zituzten langileen eskakizunak eta enpresaren bideragarritasuna bermatzeko. Ondorioz, urtarrilean, kasuan kasuko enpresari esleitu zitzaion zerbitzuaren hornikuntza baliabide ekonomiko nahikoekin. Orain, bai langileei eta baita enpresari ere, soldaten eguneraketa adostea eta aplikatzea dagokie, eta baita indarrean dagoen hitzarmena aplikatzea ere. Horregatik eskatzen diegu bi aldeei dagokien ahalegina egitea". Etxeberriak zehaztu zuen zerbait sakrifikatzea edo norberaren jarrera malgutzea esan nahi du "ahalegina" egiteak. "Kasu honetan, oraingoz, Patronatuak eta Udalak soilik egin dute ahalegina egoera berbideratzeko, zerbitzu horren zuzkidura handituz. Greba-eskubidea gauzatzeak ezin du eragin negatiborik izan egoera konpontzen dagoeneko beren ekarpena egin dutenengan".



TEA, GOZOAK ETA BESARKADA ESTUAK RAMADANAREN AMAIERA OSPATZEKO JAIAN

✍️ Aina Argoitia / 🗣️ Ainhoa Andonegi

Hirurehunik gora pertsona elkartu ziren joan zen barikuan IMHko kirolgunean Ramadanaren bukaerako 'Eid-al-Fitr' jaiko otoitzean, eta senitartekoeekin eta lagunekin gosaldu zuen gero haietako talde handi batek, Tawasol meskitan.

Eid-al-Fitr edo Ramadanaren bukaerako festa ospatu zuten musulmanek ostiralean mundu osoan, egutegi musulmanean, ilargi egutegian, ospatzen duten bi festa nagusietako bat [*Id al-Adha* edo *arkumearen eguna* da bestea]. Elgoibarren, berrehunik gora lagun elkartu ziren goizean, eguneko lehen otoitza elkarrekin egin eta mahai baten bueltan besarkada estuan batzeko, eta jai handi horretara gonbidatuak izan ginen Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneko kideok ere. Euskaratik urrun eta euskaratik gertu bizi diren familiak elkartzeko Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak sortutako *Auzoko Familiak* egitasmoak gerturatu gaitu hein handi batean elkarrengana, elkarbizitza hizkuntzatik ere eraiki daitekeen uste sendoak, eta gogo handiz jaso genuen auzoekin *Eid-al-Fitr* (Baraua Hausteko Jai) ospakizunera batzeko deia. IMHko

kirolgunean hasi genuen elkarrekin eguna, goizeko otoitzean, eta meskitan egin zuten gosari handira bildu ginen gero IMHn elkartu ginenetako familia batzuk, gosaltzera. Apain-apain jantzi eta besarkadak, muxuak eta opariak banatzeko eta goxo-gauzak partekatze eguna izan zuten, bai eta talde argazkietarako eguna ere.

Musulmanen artean barau eta gogoetarako hilabetea da Ramadana -hain egutegian urteko bederatzigarren hilabetea-. Koranaren arabera, Ramadanean errebelatu zizkion Ala jainkoak Mahoma profetari Koranaren lehen bertsoak, Hiria mendian, eta Mahoma izendatu zuen Alak bere hitzaren mezulari. Horregatik, hilabete sakratua da musulmanentzat, egunsentitik iluntzera arte barau egin, otoitza praktikatu eta beren senide eta lagunekin elkartuta, komunitatearen barne loturak sendotzeko hilabetea. Hala azaldu dute

Jamal Sefioune Largok eta Yassine El Maghraouik. Bederatzi eta bost urte damatzate hurrenez hurren Elgoibarren bizitzen, eta 13 bat urte zituztenetik egiten dute baraua Ramadanean. "Askok uste dutenaren kontra, barauak indartu egiten gaitu, eta gaur, Ramadana hasi aurretik baino garbiago eta indartsuago sentitzen naiz", azaldu du Yassinek, bietan gazteenak. 2018an urdaileko gaitz bat diagnostikatu zioten El Maghraouiri, urdaileko ultzera eragiten zion bakterio bat, baina Ramadanean sendatu egin zela dio: "Sei hilabetez egon nintzen espezierik probatu barik eta egunean hamar pilula hartzen. Haurdun dauden emakumeak, hilekoarekin daudenak eta gaixo gaudenok salbuetsita gaude Ramadanean baraua egitetik, baina nik egin nuen, eta bukatu eta sei egunera egin zizkidaten analisietan garbi eman nuen". Sendatzeko eta komunitateko barne loturak estutzeko balio die Ramadanak.

Ramadanean besteen azalean jartzen ikasten dutela dio Sefiounek ondotik, eta egoera okerrenetan bizi dutenak hobeto ulertzen. "Purifikazio edo garbiketa pertsonalerako balio du Ramadanak", dio.

Euskal Herrian ez, baina soterrian, Ramadanak irauten duen denboran, egunero biltzen dira gauean senitartekoekin eta lagunekin otoitzerako eta afaltzeko, eta hemen ere saiatu dira ahal zuten neurrian, izpiritu horri eusten. "Gure komunitateko bat sukaldaria da eta egunero prestatu du afaria meskitarako, trukean ezer jaso gabe", zehaztu du. Imanak pertsona hobeak izateko jarraibideak errezitatu dizkie goizean Koranetik, eguneko otoitz luzeenean. Bost otoitzaldi izaten dituzte egunero musulmanek Mekara begira. Meskitan pantaila handi bat dute otoitz-orduak zehazten dizkiena, eta sakelakora jaitsita dute denek aplikazioa, dauden lekuan daudela, Meka zein norabidetan dagoen zehazten diena.

Tawasol meskitan, goian eta behean, mahai handiak bete goxo eta te klase guztiak daude aukeran

"Askok uste dutenaren kontra, baraua egiteak indartu egiten gaitu, eta gaur, Ramadana hasi aurretik baino garbiago eta indartsuago sentitzen naiz"

- Yassine El Maghraoui -

gaur, familiek etxeetan prestatutakoak denak. Goiko salan, gizonetakoak, ume banaka batzuk eta gonbidatuak daude, tartean Elgoibarko Udaleko ordezkariak ere bai, eta behean, emakumeak nerabeak eta haur txikiagoak daude, mahaiaren bueltan eserita, solasean eta jan-edanean. Propio jairako erositako arropak jantzita daude ume gehienak, litxarrerriak ahobeteen jaten, pozik. "Guretzako egun handia da eta oso pozik gaude", dio Haroun Boutak, 7 urteko mutikoak. Kameralaria inguratu dute haurrek. Denek duten





zerbait kontatzeko. Probaldia hasi dute guztiek, eta bi-hiru eguneko baraua egin dute Ramadanak iraun duen denboran. "Ez da zaila. Burua indartsua da" dio, Youssef Aarichek, 9 urterekin. Nouhaila Aarich 15 urteko neskak oso-osoan bete du Ramadana eta pozik dago. 6:30ean esnatu dela kontatu du, gosaldu, Marokoko jantzi tradizionalak jantzi, eskolan jai hartu eta festarako

prestatu dela. Eskuzabal eta adeitsu hartu gaituzte Tawasol meskitan, eta gaur, atzo baino gertuago gaude elkarrengandik. "Nahi duzuenera arte. Atea zabalik duzue gurean", agurtu gaitu Driss Boutahar Kraidik. Ordu gutxiren buruan Elgoibarko Izarrako bulegoan agertu da, beste erretilu bete goxo hartuta, meskitan ahaztuta laga dugun koaderno itzultzera.



EXPRESS ESKAINTZAK!

LG COMBI GBB62PZFGN HOZKAILUA

D

839 €

- Door Cooling Plus
- 419 litroko edukiera
- 203cm-ko altuera
- Magic Crisper Kaxoia
- Fresh Converter Kaxoia
- App Thing
- Aztarnen kontrako herdoilgaitza



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



Jaso nahiko al zenituzke ELGOIBARKO eta MENDAROKO berriak zure e-postan?

Harpidetza nola egin behar duzun jakiteko,
sartu barren.eus-en eta
egin klik 'Nor Garen' atalean.
Bertan topatuko dituzu azalpen guztiak.



HEZKUNTZA ESKAINTZA 2023/24

Hazi, hezi, Mekan ikasi!



AURREMATRIKULA
Maiatzak 8-26ra.



bulegoa@meka-elgoibar.eus
Telf. 943 748 019

www.meka-elgoibar.net



MESA ALBERTO ESKARIN
Abokatu taldeak. ZA
DEPARTAMENTO ELGOIBAR
Gipuzkoa

MESA CESAR BOLA ESKARIN
4.º edificio, planta 2.
30070 ELGOIBAR
Gipuzkoa

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- METAL ERAIKUNTZAK
- GIZARTERATZEA
- GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEA
- HAUR HEZKUNTZA
- DIETETIKA
- AUTOMOZIOA
- KOMUNIKAZIO BITARTEKOTZA **BERRIA!**

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA
- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA
- ERIZAIINTZAREN LAGUNTZA
- MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA
- KARROZERIA
- IBILGAILU AUTOMOBILEN ELEKTROMEKANIKA

ESPEZIALIZAZIO KURTSOAK

- IBILGAILU HIBRIDO ETA ELEKTRIKOEN SISTEMEN
MANTENTZE ETA SEGURTASUNA **BERRIA!**
(GOI MAILAKO ESPEZIALIZAZIO KURTSOAK)

- IBILGAILU ELEKTRIKO ETA HIBRIDOEN MANTENUA **BERRIA!**
(ERDI MAILAKO ESPEZIALIZAZIO KURTSOAK)

XABIER IRUJO

Historialaria eta Nevadako Unibertsitateko
Renoko Euskal Ikerguneko
zuzendari katedraduna

✍ Ainara Argoitia

Maiatzaren 3an, eguaztena, bukatuko da Ilunberri Achademiak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleen Topaguneak, Udalaren laguntzarekin antolatu duten 'Goi erdi aroa: mende ilunak argitzen' zikloa, Xabier Irujo Ametzaga historialariak emango duen 'Orreagako bataila (778) hitzaldiarekin. Nevadako Unibertsitateko (AEB) Renoko Euskal Ikerguneko zuzendaria da Irujo, genozidio ikerketetan katedraduna, eta gai honen inguruko hiru liburu ditu argitara emanda. Antolatzaileek aurreratu dute Errozabalgo guda gertaera historikoa eta elezaharra aztertuko dituela Irujok Elgoibarren, baina bi munduak -errealitatearena eta fikzioarena- eta bi errealitateak -literarioa eta historikoa- berezita. Hitzaldia Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izango da, 19:00etan hasita, eta han aipatuko dituen hainbat konturen inguruan jardun da BARRENEKIN Estatu Batuetatik.

Mendeetan zehar, Orreagako guduaren inguruko ezin konta ahala narrazio, kondaira, bertso eta abesti sortu dira, baina noiz eta nola interesatu zinen zu gai honetan? Zerk bultzatu zintuen '778. La batalla de Errozabal en su contexto histórico' liburua idaztera?

1978an Errozabalko guduari buruzko artikulua bat ilustratzeko eskatu zidan amak, eta 1.200. urteurrenaren ospakizunera eraman ninduten gurasoek [Arantzazu Ametzaga Iribarren idazlearen eta Pello Irujo Elizalde politikari abertzalearen semea da Xabier Irujo]. Etxeko liburutegitik hartu eta Arturo Campionen *Itzaltzuko Bardo*a irakurri nuen garai hartan. Urte asko eta gero, aitarekin eta Andres Irujo osabarekin Lizarran nengoela, ongi bazkaldu ostean paseo bat ematera joan ginen. Lizarrako merkatu zaharreko Roland eta Ferracutus kapitelen aurretik pasatzean hor gelditu ginen; biek esan zituzten Errozabalgo gudaren inguruko liburua



“Baskoiek Karlos erregearen armada osoa suntsitu zuten bost bat egunean”

idatzi behar nuela. Historia ikasle nintzen orduan. Urte asko pasatu behar izan ziren eta, 2008an aita hil ondoren, hasi nintzen idazten. Urteak eman nituen lanean eta, azkenik, 2018an eta 2019an Andres Irujoren Buenos Airesko *Ekin* argitaletxean argitara eman nituen lehen bi liburuak, eta Amsterdameko Unibertsitateko argitaletxearen eskutik hirugarrena, 2021ean. Laugarren bat ere prestatzen ari naiz.

'Orreagako bataila' izenburua du zure hitzaldia. Errozabal toponimoa erabili duzu zuk, baina, Orreagako guduaz aritzeko. Zergatik?

Rozaballes batailaren lehen aipamena XI. mendeko *Nota Emilianense*-an jaso zen XI. mendean. Jimeno Juriok XII. mendean

Rocidevalles forma eta XIII. eta XV. mendeen artean *Ronçavailles* eta *Roncesvailles* aldaerak jaso zituen. Errozabal jatorrizko euskal toponimoaren bertsio erromantzeak dira *Rozaballes*, *Ronçavailles* eta *Roncesvailles*. Errozabalek, literalki, Erroko lautada esan nahi du, Auritz dagoen bost kilometro koadro inguruko lautada alegia. Aldiz, Orreaga, kolegiata dagoen eremua da.

Errozabalko gudua Iruñea eta Luzaide lotzen dituen bidean zehar gertatu zen, baina Erroko lautada horrek eman zion izena. Gudaren toki esanguratsuenak Errozabal bera, Orreaga, Ibañeta, Zize edo Garaziko mendatea eta Luzaide izan ziren. Toki horietan guztietan borrokatu ziren euskaldunak frankoekin laupabost egunez.

Literatura eta historia bereizten hartu duzu lana. Nola egin zenuen zuk zeuk dokumentatzeko?

Dokumentu guztiak Europako zenbait artxibotan daude gordeta, gehienak aspaldi digitalizatutakoak eta argitara emandakoak dira. Lehen mailako iturriak IX. mendearen hasieran latinez idatzitako testu karolingioak dira, horietako batzuk seguruenik gudan bertan egondako norbaitek idatzitakoak edo batailan egondako norbaitek kontatutakoak. Aldiz, ezin da *La Chanson de Roland* edota beste edozein epika literario hartu iturburu historiografiko gisa. 778. *La batalla de Errozabal. De la crónica al cantar* liburuan (Ekin, Buenos Aires, 2019) horixe argitzen dut, alegia, zein alde dagoen kronika historikoa eta kanta literarioaren artean. Era berean, liburu horretan azaldu nuen ere zergatik literaturak aldatu zituen historiaren pasarte batzuk, eta argitu zein intentzio artistiko, estetiko edo beste mota batekoak dauden aldaketaren atzean.

Zer da Errozabalez dakiguna eta zer ez dakiguna? Gaur egunera iritsi zaigun kontakizunean zenbat dago gertatutakotik edo historikotik eta zenbat literaturatik? Zer gezurtatzera zetorren Errozabalgo batailaz idatzi zenuen lehen liburua?

Hamabost bat gezur edo faltsukeria historiografiko zabaldu ziren literatur iturriak baliatuta historia egiteagatik. Besteak beste, 1) musulmanen kontra borrokatu zirela karolingiarrak, 2) erretagoardiari bakarrik eraso ziotela euskaldunek, 3) guda amaitu ostean

"Karlomagnoaren helburua euskaldunak zapaltzea zen, Pirinio osoa hartuko zuen 'marka' edo konterri bat ezartzeko. Pirinioetako mendebaldean ez zuen lortu, noski"

euskaldunek alde egin zutela Errozabaletik, 4) guda ez zela Zizeko mendatean gertatu, 5) ez zela berez bataila bat izan baizik eta borrokatxo edo *escaramuza* bat... Hori dena eta beste gauza asko gezurtatu ditut iturri historikoetan eta aztarna arkeologikoetan oinarrituz.

Zeintzuk ziren baskoiak? Zer estrategia baliatu zuten? Zer zen Karlomagnoaren armada?

Baskoiek zelatan ipini zuten Karlos erregearen armada osoa. Bost bat egunez, Iruñetik Luzaiderako bidean eraso egin zioten, armada osoa suntsitzea lortu arte. Baskoien armarik hoberena izua zabaltzea izan zen, bai eta gorputzez gorputz ezpataz eta azkonaz borrokatzea. Maiz esaten denaren kontra, ez zituzten gainetik edo urrutitik harriak bota. Euskaldunentzat abantailatsu gertatu zen gertutik borrokatzea.

Gurutzada itxura ematen saiatu zen Karlomagno bere kanpainari edo hala iritsi zaigu. Zer bilatzen zuen egiaz?

Karlomagnoaren helburua euskaldunak zapaltzea zen, Pirinio osoa hartuko zuen "marka" edo konterri bat ezartzeko. Pirinioetako mendebaldean ez zuen lortu, noski. Bai ordea ekialdean, eta hori dugu Kataluniaren izatearen oinarria.

Karlos erregea -Karlomagno- bizi zen artean ez zen kronikarik idatzi Errozabalgo batailaren inguruan. Noizkoa da lehenengo idatzia? Zer izan zen porrot hura Karlomagnoentzat?

Asko sufritu zuen porrota errege horrek. Sei hilabetez egon zen bere Herstaleko gaztelutik atera gabe, depresioak jota, Jaungoikoaren faborea galdu zuelakoan. Karlos ez zen inoiz Euskal Herrira itzuli eta bera bizi zen bitartean ez zen gai honen inguruan ezer idatzi. Bera hil eta urte gutxi batzuetara hasi ziren hainbat kronista franko honen inguruan euren historiak idazten.

Zer suposatzen du Errozabalko guduak euskaldunontzat eta nola oroitzen dugula esango zenuke?

Hiru Errozabalko gudu borrokatu ziren, 778an, 812an eta 824an. 760 eta 830 bitarteko aldiaren ondorio nagusia Euskal Herri kontinental eta penintsularren zatiketa izan zen, Karlos Martel, Pepino laburra eta Karlosen mende oso bateko erasoaren ostean. 824an Errozabalko gudaren ostean Iruñeko erresuma sortu zen Eneko Enekoitz *Aritza* buruzagiaren pean, mila urtez independentea izango zen nafar estatua.

Espainiako eta Frantziako historiografiak gure historia ezabatzeko nahia ez da Orreagako kontakizunera mugatzen. Hor daude, esate baterako, Gernikaz esan direnak ere, baina zaila da ulertzen gai honetan, duela hamabi mende geroago, gauden lekuan egotea. Zein da arrazoia?

Politika dago horren atzean. Hau ez da berria, Nafarroako erresumako agirizain nagusi izan zen Jose Moretek liburu bat idatzi zuen honen inguruan XVII. mendean: *Castigaciones de la historia*. Liburu horretan Moretek salatu zituen Juan de Marianaren, Historia de España ko lehen liburua idatzi zuenaren, malizia eta azpijokoak. Marianak bi liburu idatzi zituen Espainiako historiari, lehenengoa latinez eta gaztelaraz bigarrena. Bata bestearen atzetik. Lehenengo liburuan, latinez idatzitako horretan, kronika frankoak aipatu zituen Errozabalen inguruan idaztean, baina gaztelarazko bertsoa idaztean, defendatu zuen Errozabalen ez zirela euskaldunak borrokatu, astureak eta musulmanak baizik. Errolanen kanta eta beste testu literario batzuk erabili zituen iturri historiko gisa eta ziurtatu ere ziurtatu zuen ez zegoela iturri historikorik euskaldunak bertan borrokatu zirela esateko. Gezurra borobila, berak idatzitako latinerako testuan erabilitakoak ongi ezagutzen baitzituen. Hau eta beste hamaika azpikeria eta amarru erabili zituen Marianak Euskal Herriko historia desitxuratzeko. Eta horren korrante eta tradizio luze bat sortu zuen.

Gure historia idatzi dutenek euskaldunontzat ikur izan direnak zigortu dituzte gogorren, baina oraindik badaude gure bazterretan haien omenez

"Nafarroako erresumako agirizain nagusi izan zen Jose Moretek salatu zituen Juan de Marianaren, Espainiako lehen liburua idatzi zuenaren, malizia eta azpijokoak"

eraikitako monumentuak. Zer duzu esateko horren inguruan? Zer balio dute zuretzat halakoek?

Ugari, monumentu gehiegi izan ere. Errozabalen bertan Errolani eta Karlomagno dedikatutako hamaika eskultura, gurutze eta baseliza daude, eta 1978. urtera arte (guda eta 1.200 urte geroago arte) ez zen paratu euskaldunon omenean monumenturik. Aurten Patxi Aldunateren *Populus Vasconia* monumentua inauguratuko dute Luzaiden, abuztuan.

Hau ez da salbuespena; araua da Euskal Herrian eta Euskal Herria bezalako beste hainbat zapaldutako herritan. Ikusi jeneral Concharen monumentua Abarzuzan, Espoz y Mina katedralean ehortzita, *Don Tello* kondearen estatua Gernikako foru plazan... edota 1936ko gerrako hainbat sarraskiren egileen ohorean egindako monumentuak. Non dago Otsa Lupus, Eudon, edota gure herriko beste hainbeste ikurren adierazpena? 400 urte itxaron behar izan dugu Senpereko Lapurdin erre zituzten 600 sorginen omenezko monumentua edota Zugarramurdiko museoa ikusi ahal izateko. Askok dugu egiteko.

Zerbait gehitu nahiko zenuke?

778. urtean Karlos erregeak armada bat antolatu zuen Vasconia menderatzeko. Beste edozein errege arrotz baten antzera, gerra ekarri eta heriotza erein zuen; Iruñea okupatu zuen, eta suntsitzeko agindua eman zuen, baina Herstal aldera erretiratu zenean, bere bi legioak garaitu zituzten euskaldunak Errozabalen. Guda horretan borrokatu zen Enekoren semeak, Eneko Enekoitz *Aritzak*, 1.000 urte iraun zuen estatua sortu zuen. Eta Iruñeak zutik jarraitzen du. Guk, euskaldun horien seme-alabok, gure nazioaren nortasuna eta identitatearen alde jarraitzen dugu lanean, independentzia lortu arte.

Jokin Lanz Betelu

Aintzinateko Historian doktorea eta Historia eta Ondarea Graduko irakaslea Nafarroako Unibertsitate Publikoan

Aintzinateko Historian doktorea da Jokin Lanz Betelu arbazuarra, eta *Baskoiak eta bere bizilagunak* (K.a. II. - K.o. VIII. mendeak) liburua argitaratu du, doktorego tesiaren laburpena dena. Joan zen apirilaren 19an, *Baskonia erromatar aldiaren azkenetan eta ondoko mendeetan* izenburuko hitzaldia eman zuen, Elgoibarren, Goi Erdi Aroari buruzko zikloaren barruan. Lanek azaldu zuen K.o. IV. mendean, hamarkadetako isiltasun baten ondoren, idatzizko iturrietan baskoien inguruko aipamenak agertzen hasi zirela, eta lehenengo aldiz aipatu zela Baskonia terminoa bera ere. Mendebaldeko Erromatar Inperioaren hondarreko urteetan, ipar ekialdetik etorritako herri barbaroen migrazioen eta erromatar inperioaren gainbeheraren lekuko izan ziren Baskoniako biztanleak, eta migrazioek eta administrazio inperialaren kolapsoak ekarritako ezegonkortasuna eta segurtasun eza pairatu



'Baskoiak eta bere bizilagunak (K.a. II-K.o VIII mendeak)' izenburuko liburua argitaratu du Jokin Lanek gai honen harira

zituzten. Ordea, VI. mendetik aurrera eginda, Pirinioen bi aldeetara franko eta bisigodoen erresumak finkatu zirenean, dinamismo politiko eta militar handia erakusten hasi ziren baskoiak, eta aurre egin zieten beren bizilagun boteretsuei, Mendebaldean punta-puntakoak diren arma eta ezagutza diplomatikoa Baskoniako errealitate berrira egokituta.

Iñaki Lopez de Luzuriaga

Historia gaietako ikertzailea eta dibulgatzailea

Historia gaietako ikertzailea eta dibulgatzailea da Iñaki Lopez de Luzuriaga, bai eta wikilaria ere 2008az geroztik. Euskal Filologian tituluduna da eta humanitate digitaletako graduondoduna. Nabarralde Fundazioko kidea ere bada, Nafarroako memoria kolektiboa berreskuratzeko eta ezagutarazteko helburu duen elkartekoa, bai eta UEUko kide ere, eta *Euskaldunak eta karolingiar iraultza: Akitania eta Baskonian barrena* liburua argitaratu du, besteak beste. Akitania-Baskonia eta franko karolingioen erresuma aurrez aurre izenburuko hitzaldia eman zuen atzo Elgoibarren, Goi Erdi Aroari buruzko zikloaren baitan.

Hitzaldian, Baskoniako Dukerriaren sorrerari, franko merovingio eta karolingioen eraginari, eta Akitania-Baskoniako Dukerri burujabe bikoitzaren gordaldi eta gainbeherari erreparatu zien Lopez de Luzuriagak, eta azaldu zuen nola gerra hitzgailearen dialektikak Garona ibaiaren atarira



'Euskaldunak eta karolingiar iraultza: Akitania eta Baskonian barrena' liburua argitaratu du Iñaki Lopez de Luzuriagak

ekarri zituen indar karolingioak Eliza lagun hartuta. Lopez de Luzuriagak arreta bereziz aztertu zituen gerra luze hartako (711-768) gertakizunak. Hitzaldia grabatu egin zuten antolatzaileek eta *barren.eus* webgunean izango duzue aurki ikusgai: *barren.eus*



ELGOIBARKO MUSIKARIEK MAALA HARTU DUTE

✍️🎧 Ainhoa Andonegi

Bigarren urtez antolatu du Elgoibarko Musikarien Elkartek EME eguna, eta horren harira, musikak hartu zuen Maala zapatuan. Bazkaria egin zuten lehenik elkarteko musikariek, eta 18:00etan hasi ziren kontzertuak. Gabi eta Alfon izan ziren jaialdiari hasiera ematearen arduradunak, eta bata bestearen atzetik etorri ziren ondoren Xut, Bikustik, Brilllet, Amorante, Kokoteraino eta Amildegi. Musika lasaieetik mugitura egin zuen eboluzioa jaialdiak, eta azkenerako laga zituzten doinurik gogorrenak, Emekideak txandaka abesti ezagunen bertsioak abestera irten ziren unerako, hain zuzen ere. Nostalgikoz eta musika zalez bete zen Maala, eta giro onean joan zen eguna. Argazki gehiago: barren.eus





Udaberriko Gararockek ez du hutsik egin

Ama Say eta Arima taldeen kontzertuak izan zituzten barikuan Mendaron, eta antolatzaileak, Gararock taldekoak, oso pozik agertu dira izan zuten harrerarekin; bai eta San Agustinera bildu ziren musika zaleak ere, taldeen emanaldiekin eta hango soinu zainduarekin. Bi taldeek zale ugari erakarri zuten kanpotik eta gogotik gozatu zuten, aretoko eskaintzaz gain kanpoko giroa ere mimo handiz zaindu zutelako Gararockeok. GKL-k jardun zuen musika jartzen Garagartzako plazan, eta taberna ere jarri zuten antolatzaileek. Gau giro ederrak jarri zuen gainerakoa.



Elkarrizketa musikatua, Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabelekin

EME Egunaren bueltan, Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabel abeslari eta gitarra jotzailearekin elkarrizketa musikatua antolatu zuen EMEk. Eguaztenean egin zuten, Kultur etxeko sotoan, eta sutagarzalez bete zen aretoa. Jon Gurrutxaga kazetari eta abeslari elgoibartarrak egin zion elkarrizketa Gorosabeli. Taldearen *Alarma* disko berria, eta taldearen ibilbidea izan zituzten hizpide, eta tarte horretan, Elgoibarko jaietan Elgoibarren joko dutela aurreratu zuen eibartarrak. Pozik hartu zuten albistea bertaratutakoek. Ikusleen galderak erantzun ondoren, hainbat kanta abestu zituen Gorosabelek modu akustikoan, eta ekitaldiari amaiera emateko Jon Zabala, Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaleta gonbidatu zituen oholtzara. Hiru abesti kantatu zituzten elkarrekin, eta Jo ta ke abestiarekin amaitu zen ekitaldia.





ONINTZA ELIZBURU VELA

(Elgoibar, 21 urte) Haur Hezkuntza graduko 4. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

“Mondragon Unibertsitateko ikasteko metodologia oso dinamikoa da”

► **Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zale-tasunik?**

Nire ikasketak Elgoibarren egin ditut; Herri Eskolan hasi eta Institutuan jarraituz, Batxilergoa amaitu arte. Pertsona alaia eta irekia naiz, eta jendearekin harreman berriak sortzea gustatzen zait. Aldi berean, egingiaz beteriko neska naiz eta nire zaletasun handiena mendia da, besteak beste, eguneroko errutinatik deskonektatzeko aukera eta askotan behar izaten dudana lasaitasuna ematen dizkidalako.

► **Zergatik aukeratu zenuen Haur Hezkuntza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Irakasle izatea izan da beti nire ametsa eta argi neukan nire ibilbide profesionala hezkuntzara bideratu nahi nuela, bereziki, Haur Hezkuntzara. Horren argi ez neukana, aldiz, zera zen: gradua non ikasi. Momentu honetan zalantzan egongo diren beste ikasle asko bezala, ni ere erabakia hartzerako orduan zalantzaz bete nagoen. Baina behin Mondragon Unibertsitateko ate irekietara joanda, bertako metodologia ikusita, irakasleen maila baloratuta eta testigantza ezberdinak ezagututa, honen alde egin nuen apustu. Eta gaur, lau urte pasa ondoren, esan dezaket apustua irabazi egin dudala.

► **Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Esperientzia zoragarria izaten ari da, ez baikara soilik bizitza profesionalerako trebatzen ari, baizik eta pertsona bezala ere, hazten ari garelako. Unibertsitate-ra joatea bizitza beste etapa bat den arren, Batxilergotik unibertsitate-ra igarotzean, metodologia, ingurua, lagun harremanak... ezberdinak dira. Aldaketa egoera hori askotan arrotza izaten den arren, nire kasuan ez da

hala izan. Eskerrak eman behar ditut Mondragon Unibertsitateak trantsizio horretara egokitzeko baliabideak eskaini dizkidalako.

► **Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Mondragon Unibertsitateak ikasteko modu ezberdina eskaintzen duela esango nuke. Ikasteko metodologia oso dinamikoa da; hau da, eduki teorikoetan arreta jartzeaz gain, praktikari ere izugarritzko garrantzia ematen zaio. Horrek, gure ikaskuntza aberastu eta giro ezin hobea sortzen du irakasleen eta ikaslearen artean. Ni pertsonalki, oso gustura sentitu naiz hasieratik eta beraien metodologiara berehala egokitu nintzela esan dezaket. Gainera, benetan irakasle lanbidea maite dugunok emaitza onak ari gara ateratzen.

► **Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Unibertsitateetik gehien gustatzen zaidana, beste hainbat gauzen artean, irakasleekin daukagun hartu-eman da. Irakasleak gutako bakoitzaren errealitatea ezagutzen saiatzen dira eta hau beharrezkoa izan da naizen bezalakoa izatera iritsi ahal izateko.

► **Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Etorkizunean, irakasle izatea gustatuko litzaidake, baina badakit nire ibilbidea hasi besterik ez dela egin eta oraindik asko daukadala ikasteko. Gradua amaitzean, hainbat aukera izango ditut: masterrak, bigarren gradu bat, formakuntza ezberdinak, eta abar. Lan munduan murgiltzeko aukera ere bertan egongo da, eta oraindik ez dakit zein izango den egingo dudana aukeraketa; baina gogotsu eta irrikaz nago aurretik daukadan bide luzeari ekiteko.

Historiaurreari buruzko hitzaldiak antolatu dituzte Mendaron ekainerako eta irailerako

Morkaiko Leizarpe espeleologia taldeak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurreko Ikerketa Taldeak duela pare bat urte hasitako elkarlanaren fruitua da hitzaldi-ziklo hau. Lau hitzaldi antolatu dituzte, ekainerako eta irailerako, Udalaren laguntzarekin, eta helburu bat izango dute guztiak: Mendaroko aberastasun arkeologiko eta paleontologikoaren berri zabaltzea, ezagutzen ez dena ez delako baloratu ohi. Antolatzaileek aurreratu dute hitzaldiak ez direla batera teknikoak izango, ikuspegi pedagogiko batekin antolatu dituztelako. Lau hitzaldiak Mendaroko udaletxeko areto nagusian izango dira, 19:00etatik aurrera.

■ Ekainak 9: *El valle del Deba y Mendaro durante el Paleolítico*. Historiaurrean EHUKo katedraduna den Alvaro Arrizabalaga doktoreak emango du. Gaztelaniaz izango da.

■ Ekainak 16: *Cambio climático durante la Prehistoria*. EHUn irakasle eta Ikerbasquen ikertzailea den Mari Jose Iriarte-Chiapusso doktoreak emango du.



■ Irailak 15: *Emakumea historiaurrean*. EHUn irakasle den Naroa Garcia Ibaibarriagak doktoreak emango du. Euskaraz izango da.

■ Irailak 22: *Deba haraneko historiaurrea makrougatzunen ikuspegitik. Ondare arkeologiko eta paleontologikoaren garrantzia iragana ulertzeko*. EHUn irakasle den Aritza Villaluenga doktoreak emango du.

Adimen emozionalari buruzko formazioa emango dute Mendaron



Adimen emozionalari buruzko formazioa antolatu dute Mendaron gurasoentzat. Arno Guraso Elkarteak antolatu du, Udalaren laguntzarekin, eta bi saio izango dira: maiatzaren 4an lehenengoa eta maiatzaren 11n bigarrena. Biak, 18:30ean, udaletxeko pleno aretoan. Formazioa doan da, eta elebietan. Esther Martinez Baikarakoak emango du.

'Alaia galtzagorria' haurrentzako titere ikuskizuna, bihar, Mendaron



Ostomila txotxongilo taldeak Alaia galtzagorria haurrentzako titere-ikuskizuna emango du bihar, zapatua, hilak 29, Mendaron. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 17:30ean. Sinopsia: Deabru txiki batek altxorra lapurtuko du Orozkoko kobazulotik, eta zezengorrik, altxorraren zaindaria den minotauroak, Alaiari deituko dio, bilatzen laguntzeko.

Dantzaren historia musikatu dute 'Korrotik pikutara' saioan

Erromerietako euskal dantzen istorioa eta bilakaera modu didaktikoan ezagutzeko aukera eduki zuten *Korrotik Pikutara* hitzaldi-dantzatuan parte hartu zuten lagunek. XVI. mendeko braleatik gaur egungo dantza solteetara egon den garapena azaldu zuen Oier Araolazak, joan den zapatu eguerdian, Aita Agirre kulturgunean egin zuten saioan. Azalpenak praktikarekin jantzi eta uztartu zituen baina, horixe baita saio honen ezaugarri nagusia. Entzuleak ez ziren hizlariaren aurrean eserita egon, aitzitik, segundo bakar batean ere ez ziren eseri ordu eta erdiko saioan. Araolazaren azalpenak gorputzak dantzan jarriz irudikatuko



zituzten, Gari Otamendi eta Quico Pugès musikariaren zuzeneko musikaren laguntzaz. Hala, dantzaren historia dantzan jarri zuten. Kezka eta Haritz taldeko dantzariak ere lagundu zuten saioa ontzen eta baita Andoni Urbieta txistulariak ere.

Haritz dantza taldearen 50. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan antolatu zuten emanaldia.

Lan-praktikak euskaraz egitearen garrantziaz mintzatu dira IMHn



IMH-ko areto nagusia gainezka zegoela egin zen eguaztenean lan-praktikak euskaraz egiteak duen garrantziaren gaineko mahai-ingurua. IMH Campusek antolatu zuen, Elgoibarko Izarraren lankidetzarekin, eta Kike Amonarriz izan zen moderatzailea. Mahaian, berriz, bost lagun: Danobateko Jon Burgoa eta Aritz Artetxe, Gainduko Ane Garmendia, eta Etxepe eta Bronymecenpresetan praktikak euskaraz egiten diharduten Aitor Duo eta Kimetz Oñederra. Lan eta enpresa mundua euskalduntzeak duen garrantzia azpimarratu zen, eta mahaikideek lana eta hizkuntzaren kudeaketa zelan bizi dituen kontatu zuten.

Nafarroako hiru konpartsak parte hartuko dute maiatzaren 6ko Erraldoien Topaketan



Erraldoien Topaketa antolatu du Haritz dantza taldeak maiatzaren 6ko, 50. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan. Lau konpartsak parte hartuko dutela aurreratu dute antolatzaileek: Tafallako Asier Marco, Iruñeko Buztintxuri Erraldoiak, Barañaingo Ezpelur eta Elgoibarko Erbuze. Lau konpartsek kalejira egingo dute, 11:00etan Kalegoen Plazatik hasita. Kalejiraren amaieran Kalegoen plazan erakusgai egongo dira bisitan etorriko diren erraldoi guztiak.



I. URTEURRENA

Josefa Suinaga Agirre

2022ko apirilaren 30ean hil zen, 95 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
domekan, apirilaren 30ean, 11:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Gure bihotzetan zaude
eta zeruko izarrekin batera
distira egiten duzu.***



Etxekoak



IV. URTEURRENA

Gloria Aranguren Urkidi

"Beraseta"

2019ko apirilaren 28an hil zen, 81 urte zituela.
Haren oroimenez IV. urteurreneko meza izango da, domekan,
apirilaren 30ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Lau urte pasatu dira
gure ondotik joan zinela
baina zure bideari jarraituz
aurrera goaz beti bezela.***

Etxekoak



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberrria.com
www.funerariaetxeberrria.com

**Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.**

Modelos Modelberri saskibaloia taldeak Take Coach taldea izango du aurkari igoera kanporaketan

Gipuzkoako Hirugarren Mailako liga txapelketan hogeitau talde aritu dira lehia, hamar taldeko bi multzotan banatuta. Modelos Modelberri jokatuako 18 partidetatik 16 irabazi zituen eta bere multzoko lehen postuan amaitu zuen liga erregularra. Hala, erakustaldia emanaz sailkatu zen igoera kanporaketetarako. Beste multzoko laugarren sailkatua, Astigarragako Mundarro taldea, izan zuten aurkari final-laurdenetako lehia, domekan Olaizagan jokatu zuten neurketan. Saillapen hobereana lortu zuen taldearen etxean jokatu zuten kanporaketa, partida bakarrera. Elgoibartarrek 50-45 irabazi zuten, eta finalerdietarako sailkatzea lortu. Kanporaketa hori ere partida bakarrera jokatu dute, eta berriro ere, etxean. Tolosako Take Coach taldea izango dute aurkari, beste multzoan bigarren amaitu zuen taldea. Tolosarrek Beasaingo Arri BKL Gaztelu taldea kanporatu zuten final-laurdenetan. Modelos Modelberri eta Take Coach taldeen arteko



lehia maiatzaren 7an izango da, esan bezala, Olaizaga kiroldegian. Irabazlea maiatzaren 14an jokatu den finalerako sailkatuko da, baina galtzaileak izango du igoera lortzeko aukerarik, hiru talde igoko baitira Gipuzkoako Bigarren Mailara. Hortaz, finalerdietako galtzaileen arteko lehiatik irtengo da igoera lortuko duen hirugarren taldearen izena.

Igerilekua itxita, eta ur jardueren ikastaroak, bertan behera

Udal Kirol Patronatutik jakinarazi dute kiroldegiko beharginek hasi duten greba mugagabeak eragina izango duela zerbitzuetan. Sorosle zerbitzurik egongo ez denez, Olaizaga kiroldegiko igerilekua itxita egongo da, sorosleen grebak irauten duen denboran. Era berean, bertan behera gelditu dira ur jardueren ikastaro guztiak: igeriketa ikastaroak, igeriketa eskola, masterrak, hasiera, hobekuntza, jaio berriak, e.a. Ematen ez dituzten ikastaroak ez dituztela kobratuko zehaztu dute.

Olaizagako eta Mintxetako bestelako instalazioak irekita egongo dira, hau da, Kirol taldeek Olaizagako kantxa eta Mintxetako futbol zelaia erabiltzeko aukera izango dute, eta Udal Kirol Patronatuko abonatuak eta bestelako erabiltzaileak Olaizagako eta Mintxetako instalazioak (rokodromoa, muskulazio gelak, aldagelak, saunak, squasha, tenis, padel eta atletismo pistak, futbol zelaiak, kantxa, e.a.),



erabiltzeko aukera izango dute. Udal kirol Patronatutik jakitera eman dutenez, kirol-zerbitzuen BPXport-eko langile eta enpresaren arteko akordioa lortzeko bitartekari lanak egiten jarraituko dute, betiere, herritarrei ahalik eta zerbitzu egokiena eskaintzea bermatzeko.

Javier Pedrera gailendu da estreinakoz Elgoibarren jokatu duten Gipuzkoako Xake Azkarreko Txapelketan

Gipuzkoako Xake Azkarreko Txapelketa jokatu zuten domekan Elgoibarren, Zubi-Ondo xake taldeak Mugertza kalean duen egoitzan. Lurraldeko hainbat herritatik etorritako 52 xakelari aritu ziren lehian, goizez eta arratsaldez. Joko sistema suitzarra erabili zuten txapelketarako: Irabazten duenak; puntu bat; tablak eginez gero, puntu erdi, eta galduta, zero. Zazpi partida jokatu zituen xakelari bakoitzak eta 15 minutu zituzten partida bakoitza bukatzeko, mugimendu bakoitza egiteko zuten bost segunduko tarteez gainera. Lehia estua izan zen eta lehen bost sailkatuek puntu kopuru bera eskuratu zuten: 5,5 puntu. Berdinketa hausteko euren artean lortutako emaitzak hartu zituzten kontuan, eta hala, Errenteriako Fomento xake taldeko bi kide izan ziren onenak. Javier Pedrera Lobatok lortu zuen lehen postua eta Juan Luis Alfaro Garcia del Cerrok bigarrena. Hondarribiako xake taldeko kidea den German Alejandro Herrera Ortega xakelari venezolarra sailkatu zen hirugarren



postuan, eta Zubi-Ondo xake taldeko kidea den Felix Manso Marquez laugarrengean. Zubi-Ondo xake taldekoak pozik daude txapelketa hau estreinako aldiz antolatzeko aukera izan dutelako, eta parte hartu zuten xakelariak gustura aritu zirelako. "Hainbat xakelarik zoriondu gaituzte, eta txapelketak izan duen puntualitate zorrotza txalotu dute bereziki, ez baita erraza egun bakarrean zazpi jardunaldiko txapelketa batean dena jarritako orduaren barruan antolatzea", azaldu dute Zubi-Ondo taldekoek. Gipuzkoako Xake Federazioa ere pozik da Zubi-Ondokoek egindako lanarekin eta udazkenean txapelketa gehiago antolatzeko aukera emango dio Elgoibarko taldeari.



Espainiako Erreginaren Kopa eskuratu du June Loidik Bera Bera taldearekin

Super Amara Bera Berak eta KH7 BM Granollers taldeek jokatu zuten, joan zen domekan, Espainiako Erreginaren Kopako finala, Malagako Martin Carpena kiroldegian. Euskaldunek 31-25 irabazi zieten kataluniarrei, eta hala, zazpigarren aldiz eskuratu dute titulu hori. Iaz esku hutsik gelditu zen Bera Bera etxean (Illunben) jokatu zuten Kopan finalera ere ezin izan baitzuten ailegatu, eta arantza kentzea lortu dute aurten, Malagan jokatutakoa irabazita. June Loidi 2021eko udan batu zen taldera eta irabazi duen bigarren titulu handia da honakoa, iaz, bere estreinako denboraldian, Liga txapelketa irabazi baitzuen. Zortzi liga txapelketa irabazi ditu Bera Berak, azken hirurak jarraian. Aurten ere lortu dute Guerreras Iberdrola ligako play-offetara sailkatzea, liga erregularra lehen postuan amaitu baitu Donostiako taldeak. Zortzigarren sailkatua, Motive.co Gijon, izango dute aurkari final-laurdenetan. Kanporaketa bi partidara jokatuko dute: apirilaren 29an, Gijonen, eta maiatzaren 6an, Donostian. Bera Berako jokalariek Unai Arrieta kirol psikologo elgoibartarrak eurekin eginiko lana ere nabarmendu dute titulua eskuratu ostean, "ekarpen handia" izan dela esanez.



Kalbariora eginiko irteerarekin amaitu da umeentzako mendi irteeren denboraldia



Elgoibarko umeentzako eta gurasoentzako mendi irteera sorta antolatu zuen Morkaiko mendi taldeak, Elgoibarko Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin elkarlanean, eta joan den domekan egin zuten denboraldiko azkena: Urkamendi-Kalbario ibilaldia. Debara arte trenez joan ziren 38 eskola-ume eta beste horrenbeste nagusi, eta kostaldeko paisaia ederrez gozatzeko

aukera izan zutela azaldu dute antolatzaileek. Umentzako mendi irteeren denboraldia amaitu bada ere, gaztetxoek mendiaz elkarrekin gozatzeko beste aukera bat izango dute Morkaikoren Egunaren barruan egingo duten Itzulitxoan, maiatzaren 13an. Parte hartzera animatu ditu Morkaikok. Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea: kirolprobak.com.

LANA**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, gauetan ere bai. Titulua eta esperientzia ditut.

602 490 595

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka edo asteburuetan.

640 881 328

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka edo asteburuetan.

642 578 943

Adinekoak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai.

602 043 190

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketa lanak ere egiten ditut.

604 121 670

Adinekoak zaintzeko nahiz garbiketa lanak egiteko prest nago. Ordutegi malgua daukat eta gauetan lan egiteko ere prest nago.

631 677 339

Adinekoak zaintzeko nahiz garbiketa lanak egiteko prest nago. Ordutegi malgua daukat eta gauetan lan egiteko ere prest nago.

631 212 497

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Beharrezko titulua eta esperientzia.

631 785 168

Etxez etxe lan egiteko prest nago. Garbiketa lanak egiteko nahiz adinekoak zaintzeko prest. Berehala lanean hasteko moduan. Ordutegi malgua. 617 630 178

Adinekoak zaintzen edo etxeko lanak egiten aritzeko prest. Berehala lanean hasteko moduan, izan etxeko langile moduan edo bestela.

603 169 890

Adinekoak zaintzen edo etxeko lanak egiten aritzeko prest. Berehala lanean hasteko moduan, izan etxeko langile moduan edo bestela.

631 511 111

Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo zerbitzari lanetarako prest nago.

627 629 116

Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo zerbitzari lanetarako prest nago.

687 040 962

Eskaintza

Baserri batean adineko bat zaintzeko pertsona bat behar dugu, etxeko langile moduan. Zaintza titulua eta paperak legez edukitzea beharrezkoa. Heldua izatea eskatzen da, eta autoa badu, hobea.

653 723 095

LOKALAK

Herriko gazte bat naiz, eta lokal bila nabil, nire zaletasun bat gauzatu ahal izateko. Hilean gehienez 350 euro ordainduko nituzke errentagatik

685739 778 (Hodei)

ETXEBIZITZA

Etxebizitza alokatzen da Deban. Urte osoan zehar, hilabeteka edo asteka. Hiru logela, bi bainugela eta bi balkoi eder ditu, etxea jantzita dago. Bista paregabeak. Igogailua zero kotatik.

657 795 876

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Unibertsitatearen Lanbide-Enpleguaren</p>  <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Beherengo solairuan bizi naiz, eta jakin nahiko nuke hesiak jarri ote ditzakedan leihoetan, segurtasun arrazoiak argudiatuta.</p> <p>Faxada eraikineko elementu komuna da, eta beraz, estetikari eragiten dion edozein aldaketa egitea debekatuta dago, baldin eta ez bada etxejabe guztien artean adostutako kontua izan. Eta zure kasuan, udal ordenantzetan jasotakoa ere begiratu beharko litzateke. Dena den, kasu honetan komunitatearen eskubideak talka egiten du edozein etxejabe bere etxean seguru bizitzeko duen eskubidearekin. Zure kasuan, bilera aipatu beharko zenuke gaia, etxejabeen baimena eskatuz. Bilera baietza irrteten bada eta bestelako traba administratiborik ez bada, inolako arazorik gabe jarri ahal izango dituzu hesi horiek. Traba administratiborik ez bada, baina bilera ezetzak irabazten badu, auzitegira jo ahal izango duzu, etxean seguru bizitzeko baldintzak urratu zaizkizula arrazoituta.</p> <p> Ondorioa: Kasuistika asko egon daitezke, baina normalean, eta eraikinaren estetikari eta beste etxejabearen bati kalte handirik egiten ez zaion kasuetan (adibidez, hesiok baliatuta goragoko etxera eskalatzeko aukera izatea), epaileek baimentzen dute hesiak jartzea, etxejabearen segurtasunerako direla aintzat hartuta.</p> <p>GOXOR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--



Zorionak, **Ane**,
atzo 8 urte egin
zenituelako!
Muxu asko
Nuria, Leire
eta Maialenen
partez.



Zorionak,
Duna! Ondo
ospatu zure 9.
urtebetetzea
asteburuan!
Muxutuak,
potxoli!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAK
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



**180 cm-ko luzeerako koltxoietan
%5 gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, %10.**



+



Luzeza:	90	105	135	150
Prezioa:	475€	520€	640€	690€

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

ELGOIBARKO IZARRAK AISIALDIKO KOORDINATZAILEA BEHAR DU

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Lan hezitzaile eta euskalduna burutzea.
- Auzoko familiak programa koordinatzea (kulturartekotasun programa).
- Aisia hezitzaileko ekintzak aurrera eramatea (udalekuak, ekintzak eta abar)
- Egitasmo ezberdinen koordinazioa aurrera eramatea.

ESKAINTZEN DA:

- Sei orduko jarduneko kontratua, irailetik hasita.
- Formatzeko aukera.

BALORATUKO DA:

- Aisia hezitzailean lan eskarmentua izatea.
- Euskara maila handia izatea, ahoz eta idatziz.
- Begirale titulua izatea edota hezkuntzarekin zerikusia duen gradua amaitua izatea.
- Aisialdiko zuzendari titulua izatea.
- Pedagogia aktiboetan esperientzia edota formazioa izatea.
- Garapen pertsonalerako bestelako gaitasun nahiz praktikak.
- Parte hartzea, hezkidetzeta edota inklusioaren inguruko ezagutza izatea.
- Euskalgintzan jardun izana.
- Elgoibarkoa edo ingurukoa izatea.
- Gida baimena eta kotxea izatea.



Curriculumak bidaltzeko azken eguna maiatzak 31

www.elgoibarkoizarra.eus webguneko "koordinatzaile deialdia" atalean eman izena (eskumako zutabearen)
Zalantzarik izanez gero, deitu lasai 943 741 746 zenbakira eta Naiara Martinengatik galdetu.

29 ZAPATUA

Hileko azken zapatuko azoka

09:00-14:00 Baserriko produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

ArTalde Elgoibarko Artisauen elkarteko kideek eskuz eginiko produktuak salduko dituzte.

12:00-14:00 Umeentzako tailerrak. Kalebarren plazan.

Eguerditik aurrera: Ganadu erakusketa, Kalebarren plazan.

17:30 'Alai galtzagorria' haurrentzako titere ikuskizuna, Mendaro, San Agustin kurgunean. Udalak antolatuta.

2 MARTITZENA

19:00 Hitzaldia: Arnaldo Otegi hitzaldia eskainiko du, Aita Agirre kurguneko areto nagusia.

3 EGUAZTENA

11:00 Meza: Santa Kurutz Eguneke meza, San Rokeko ermitan. Ondoren, hamaiketako banatuko dituzte.

4 EGUENA

18:30 Adimen emozionalari buruzko gurasoentzako formakuntza Mendaroko udaletxeko pleno aretoan. Arno Guraso Elkaratek eta Mendako Udalak antolatuta. Elebietan izango da. Apirilaren 11n bigarren saioa.
19:00 Musika Eskolako koruaren kontzertua. Herriko Antzokian.

5 BARIKUA

17:00 Jolasa kalera. Lekuederren.

GOI ERDI AROA: ERROMAREN GAINBEHERATIK IRUÑEKO ERRESUMAREN SORRERARA. MENDE ILUNAK ARGITZEN

Orreagako bataila (778)

Hizlaria: Xabier Irujo - Historialaria. Nevadako (EE.BB) Unibertsitateko Renoko Euskal Ikerguneko zuzendaria.

Maiatzak 3, asteazkena
19:00

Aita Agirre Kurguneko areto nagusia

Antolatzaileak:  Laguntzaileak: 



<h1>Osasun gida</h1>	 <p>RPS233/13 943 366 377 San Bartolome, 22 20870 Elgoibar</p>	<p>NATUR HOUSE Ainara Iriando Ansola GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA RPS 203/16</p> <p>Tarbio Etebarria, 22 Elbar 677 551 850</p> 	<p>fisio&más Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea</p> <p>Trenbido kalea, 13 943 740 191 / 667 953 698 www.fisio-mas.com</p> <p>RPS 177/12</p>
	<p>RPS 271/12</p>  <p>Jausoro plaza, 6 behea Elgoibar 943 531 953 669 565 745</p> 	<p>RPS 183/12</p>  <p>Elgoibar 943 740 359 Deba 943 192 192</p>	<p>leku eder horts klinika RPS 171/12 Elena Herrero Lobo Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar 943 530 053</p>

Zinea



'20.000 especies de abejas'

28 barikua: 19:00
 29 zapatua: 19:00 / 22:15
 30 domeka: 19:00
 1 astelehena: 21:00

'Aftersun' (Ongarri)
 3 eguaztena: 21:00

Los tres mosqueteros: D'Artagnan
 5 barikua: 19:00

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
 OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

APIRILA

28 BARIKUA
 29 ZAPATUA
 30 DOMEKA

Egunez

■ Fernandez
 Yudego
 Yudego

MAIATZA

1 ASTELEHENA
 2 MARTITZENA
 3 EGUAZTENA
 4 EGUENA
 5 BARIKUA

Egunez

■ Ibañez
 Barrenetxea
 ■ Ibañez
 Garitaonandia
 Arriola

2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	---	---

Maiatzaren 28an
Udal eta Batzar Nagusietako
hauteskundeak

**Galdetu Elgoibarko
eta Mendaroko alkategaiei**

Bidali alkategaientzako galderak
apirilaren 30rako:

barren@elgoibarkoizarra.eus

688 655 658



Elgoibar

				
Maialen Gurrubega (EAJ-PNV)	Aitziber Aranberti (EH Bildu)	Ariana Nogales (PSE-EE)	Evaristo Rodríguez (Elkarrekin-Podemos)	Arantzazu Contreras (PP)

Mendaro

		
Itxaki Arregi (EAJ-PNV)	Eneiz Ezenarro (EH Bildu)	Mari Jose Yllera (PSE-EE)



Lur Urizar Aduriz, 8 urte Elgoibar
Maialen Agirregomezkorta Alkorta, 7 urte Elgoibar

"Espazioko bitxikeriak"



Lucia Gamiz Miguel, 7 urte Elgoibar
Alma Rescalvo Garcia, 8 urte Elgoibar

"Espazioko planetak"



GREEN MI O EN Z GIDA



LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
943 743 490

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
 Pedro Migel Urruzuno, 8
943 740 512
 Fax: 943 743 565
 tienda@pagoagasa.com
 www.pagoagasa.com

BILTEGIA
 San Antolin, 13 - ELGOIBAR
 taller@pagoagasa.com
943 740 279

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuareanbide, 12-14-16
 tel/fax. 943 743 116
 www.biena.eus
 info@biena.eus

PINTURA

BIOK dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
 biok@biokdekorazioa.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
 Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
 santanaiturgintza@gmail.com

AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia - altzariak - elxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
 20850 Mendaro
943 756 112
636 497 485
 www.iraolagoitia.com

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Urruzuno, 14 behea
 20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
 ego.luz@hotmail.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA

Cualunkola Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
 www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
 carpinteriaimar@hotmail.com

@carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

23,10€ / leian

12 / aldiz urtean

4,885 / ale astero

22 Eren truke, hilerro, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihen ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agire Kulturunea, 3. 3. ezk
 20870 ELGOIBAR

POSTA BIDEZKO

BOTOA

Botoa emateko epea:

**Apirilaren 4tik
maiatzaren 18ra**

Batzokia irekita:

**Apirilaren 20tik
maiatzaren 18ra**

11:00 - 13:00

Kontsultarako telefonoa:

675 718 466

**Aurrera
egiteko**



ELGOIBAR